istorio

10 Testu **publikoa** dugu eta **literarioa**, eleberri zati hau idazle batena delako. Baita ere nobela da idazlea errealitatea deskribatzen saiatzen delako. **Errealitatea** deskribatzeko meatzari anonimoak protagonistatzat hartu ditu egileak. **Blasco Ibánez idazle valentziarrak,** egunkarietakokolaborazioetan eta garai hartako gizartearekin zer ikusirik zeukaten eleberrietako gaiak plazaratu zituen. Pertsonan arrunten bizimoduak deskribatu zituen, landa mundukoak, hiritarrak eta gerretan izandako bizipenak. Gizarte edukia da testuan agertzen dena eta zeharkako moduan XIX. mendeko azken laurdenean Bizkaian izandako industria iraultza.//Meategiko **harrobia** bera deskribatzen du idazleak eta hor egiten diren **lanen sekuentzia** azaltzen du: harri zulatzaileek egindakoa, harritzarren apurketa, bagoien zamatze lanak eta mea biltegirako bidaia. Hori aitzakia da meatzarien nekeza azaltzeko, lanen gogortasuna azaltzeko: “ abailduta iristen ziren ”.**Lanaren gogortasunez** gain, haien baldintzak azaltzen ditu. Klima askotan oztopoa zen eguraldi txarrarekin ezinezkoa baitzen aire zabalean aritzea eta beraz egun horietan ez zen soldatarik kobratzen. Gainera hasieran **amai gabeko lanaldia**.**Elikagai murriztuak** ere aipatzen dira pasarte honetan. Garai hartan elikagaiak ez zirelako oso osasuntzu. **Soldata**ren ia osoa erabiltzen zen bakarrik **elikadura** ziurtatzeko. Gainera zuzenean **erreketatik urak** hartzeagatik gaixotasun infekziosoak bultzatu ziren. Eta meatzariak askotan **behartuta** zeuden **meategietako kantinan** elikagaiak erosten, beti garestiagoak eta noizbehinka egoera txarrean. Azkenik, meatzari askoren etxebizitzak aipatzen dira, **barrakoiak** deitu zirenak. Idazleak barrakoi arrunt horien **ezaugarriak** eta barruko giroa deskribatzen du: aire eza, loaldiak txandaka, langileen pilaketa, gaixotasunak transmititzeko baldintza egokiak, bizkarroiak, arroparen zikinkeria, ur eza, komunik ez,… Bestalde, arriskuak ere sortzen ziren lanean, leherketaren ondorioz edo bagoneten mugimenduengatik. Istripuei aurre egiteko **ospitale sarea** eraiki zen.//Bizi baldintza txarrek bultzatu zuten meatzarien arteko kontzientzia eta hortik **laguntza elkarteak** sortuko ziren eta **sindikatuak**. Horien bidez **ideologia berriak** agertu ziren, gizartea eraldatzekoak zirenak: sozialismoa, anarkismoa.Ekintza praktikora eramango zituzten langileak eta horregatik **grebak** egingo ziren, ospetsuenetarikoa 1890ekoa, geroxeago ere errepikatuta 1903an. Langileek **bizi baldintza duinak** eskatu zituzten: ordutegi finkatzea (**10 ordu**koa), **atazak** desagertzea, **kantinak** desagertzea, **barrakoiak** desagertzea,… Hain ziren egokiak lehen grebetan bitartekari lana egin zutenek, **Loma** eta Zappino **jeneral**ek, langileen errebindikazioak ontzat eman baitzituzten. Modu berean **kontsumo kooperatiben** bidez saiatu ziren aurre egiten elikagaien arazoari, batzuetan enpresek antolatutakoak eta beste batzuetan langileen antolaketaren azpian. Baina bizi baldintzak beti gogorrak izango ziren. Horren adibide gisa, 1899an, 1600 kilo bakailao eta 126 kutxa urdai, mea arroarako zirenak, bertan behera utzi zuen Bilboko Portuko Osasun Zuzendaritzak ustelduta baitzeuden.Grebek, salaketa bezala irakurri ziren eleberriek eta informazioek kezka areagotu zuten gizartean eta alderdi politikoen artean. Horregatik **txosten ofizialak** egingo ziren bizitza baldintzak hobetzeko helburuarekin eta etxebizitza arazoari aurre egiteko. Hori dela eta **Etxe Merkeen legeak** egingo ziren XX. mendeko bigarren hamarkadan, erregimen kooperatibistan langileek beraiek etxebizitza duina altxatzeko.